

20

22



Ekoizpen
unitatea



Enpresa erabiltzaileak lagatako argazkia

Ekoizpen unitatea

2022an, Donostia Kulturako Produkzio Unitateak **679 ekoizpen** egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal zentroan eta beste gune batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpenotan sartzen dira Donostia Kulturaren jaialdiak ere, hots, **Antzerki Feria, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia** eta **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**.

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2022an beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini genizkien gure ekoizpen-zerbitzuak.

- **Kursaal Eszenaren** kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).
- **2022ko Urrezko Danborra** emateko ekitaldia, Victoria Eugenia Antzokian.
- **Musika Hamabostaldia / Quincena Musical** Kursaal Zentroan, San Telmo Museoan eta Tabakaleran.
2022an, opera nabarmendu zen Jaialdiaren ekoizpenen artean.
- Produkzioaren Koordinazioa, **SSIFF Donostia Zinemaldiarekin** batera, Victoria Eugenia Antzokian.
- **El Diario Vasco**ren Eguberrietako kontzertua Kursaal Auditorioan.

Jasangarritasunaren aldetik, 2022an 3.018 lanpara LED teknologiarara aldatu ziren Victoria Eugenia Antzokian (ikuskizunak argitzekoak izan ezik).

Orobat, 2007. urteko zaharberritzean jarritako hozteko gailuaren ordeztu makina ahaltsuago bat ipini zen, eta hartara kontsumoak eta isurpenak gutxitu ziren. Jarduera horiek Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Funtsak (Next Generation Funtsak) finantzatu zituen.

Bukatzeko, 2023ko lehen hiruhilekoan motorizatze eta maskor akustikoari konponbidea emateko azterketa esleitu da.



Enpresa erabiltzaileak lagatako argazkia



Enpresa erabiltzaileak lagatako argazkia



Enpresa erabiltzaileak lagatako argazkia



Enpresa erabiltzaileak lagatako argazkia